

txintxarri



Udan aurrera jarraitzeko, festa

Karmengo festak ospatu ditu Oria auzoak. Gustu eta adin guztientzako egitarau zabala izan dute auzotarrek / 8-9

TXINTXARRI

Odolaren beharra

Odola eta bere osagaien emariei buruz bi aditurekin hitz egin du TXINTXARRI-K / 6-7

Santa Ana gero eta gertuago: pintxo lehiaketa eta azoka egingo dituzte igandean / 4

Ehunmilak probako gau trumoitsuaren ingurukoak kontatu dizkiote TXINTXARRI-ri herriko lasterkariek / 10




MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Ordu-tegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45



35 urtez zuekin

Eskerrik asko gure ibilbidea posible egiten duzuen guztiei

eta oraindik elkarrekin egiteko asko gelditzen zaigu!



Lasarte-Oriako EH Bilduko alderdia herriko merkataritza txikia babesteko lanean ari da. TXINTXARRI

Saltoki handien hedatzea galarazteko helegiteak

Lasarte-Oriako EH Bilduk eskatu du merkatalgune handien zabaltzeari mugak jartzeko. A-33 Teresategi eremuari dagokion Bateragarritasun Planari helegiteak jartzeko epea zabalik dago; aurkeztutako argudio horien berri eman du alderdiak

Txintxarri

Irmo mantendu da hasieratik Lasarte-Oriako EH Bildu A-33 Teresategi eremuan eraikiko duten Leroy Merlinekin; merkatalgune handien zabaltzeari mugak jartzeko eskaera egin dute Pablo Barrio, Gorka Lizarraga, Leire Elizegi eta Kristina Bernal zinegotziek. Horrekin batera, ekainaren 14an Eusko Legebiltzarrean EH Bilduren ekimenez aurkeztutako merkatalgune handien inguruko legez besteko proposamenarekin bat egin dute. Horrekin merkatalgune handien zabaltzea "mugatu" nahi dute; hiru hilabeteko epea eman diote Gasteizi saltoki handiei buruzko plan bat aurkezteko. Hori bai, plan horrek "argi berdea" izan bitartean, moratoria bat ezartzea ere eskatu dute. Eskaera hori bera eginen dio alderdiak Lasarte-Oriako Udalarari. Izan ere, saltoki handiek dendari txikiei, ingurumenari eta lurralde

antolakuntzari kalte handiak eragiten dizkiotela arrazoitu du alderdiak.

Helegiteen epea

A - 3 3 T e r e s a t e g i k o Bateragarritasun Plana onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu ostean, alegazioak aurkezteko epea zabalik da orain. Uztailearen 27a izango da horretarako azken eguna; EH Bilduk aurkeztuko ditu bereak.

EH Bilduren ustetan, hirigintza proiektuak "ez dio interes orokorrari erantzuten". Herritarrek egindako eskaerei erantzun beharrean, "merkataritza maraka handi baten eskaintzari" erantzuten diola azaldu du: "Neurrira egindako urbanismoa da".

Salatu dute proiektuaren justifikazioa nahikoa ez dela. "Proiektuaren eragin sozioekonomikoa neurtzeko azterketarik ez da egin, eta hori beharrezkoa da".

Indarrean dagoen lurraldeko ordenantzarekin "bateraezina" dela ere gogorarazi du EH Bilduk: "Planteatzen den antolamendu orokorraren aldaketa ez dator bat indarrean dauden irizpideekin; guztiek diotenez periferiako merkatal gainazal handiak kaltegarriak dira hirien eta herrien biziarentzat".

Prozesu parte hartzailearen "eskasia" ere argudiatu du alderdiak. Adibideak aipatu ditu: prentsan jarritako saio informatiboen iragarkiak herriko kroniketan jarri beharrean, kirol atalean jarri dituzte; eta kalean jarritako orri zuri-beltzak herrian jarri beharrean, Errekalden jarri dituzte. Horren ondorioz, jende gutxi jakin zuen saio informatiboaren berri. Horren irakurketa egin du EH Bilduk: "Leroy Merlinek ustezko onurak ez dira hain nabarmenak modu hain zabarrean ezkutatu behar dituztenen".



Udal ordezkariak, Tomas Arrizabalaga Ttakuneko presidentearekin. TXINTXARRI

Euskara sustatzeko ahaleginean Ttakun lagunduko du udalak

Ttakun Kultur Elkarteak 175.385 euro jasoko ditu 2018an garatuko dituen programak laguntzeko

Txintxarri

Euskararen erabilera sustatzeko urtebeteko hitzarmena sinatu dute Ttakunek eta udalak. 370.638 euroko aurrekontua aurkeztu du herriko kultur elkarteak, eta horren %47 lagunduko du udalak. Babestuko dituen programak dira Gaztekluba, Kuadrillategi, Gurasoleku, Solaskide-solasbide, Kulturagintza euskararen eskutik eta TXINTXARRI aldizkaria.

Lasarte-Orian Euskararen Maratoiak duen arrakasta ikusita, Ahobizi eta Belarriprensten egitasmoa Euskal Herrira zabaltzeko programa martxan jarri du Eusko Jaurlaritzak. Dagoeneko Euskal Herriko 400 herri baino gehiago batu dira egitasmora, tartean Lasarte-Oria. Horretarako diru sorta bat ere aurrekusi dute diru laguntzaren barruan, eta parte hartzeko deia luzatu dute udal ordezkariak.

Manttangorri hiribusaren zerbitzua egongo da abuztuan

Udalbatzarrak aho batez onartu du ez ohiko bilkuran Manttangorri autobus zerbitzua luzatzea abuztuan

Txintxarri

Manttangorri hiribus zerbitzuak uda osoan jarraituko du. Udalbatzarrak aho batez onartu zuen zerbitzua joan den ostiraleko ez ohiko batzarrean. Uztaile eta abuztuan 08:00etan abiatuko da lehen autobusa Antxisutik, eta 08:45ean bigarrena. 10:30etik 13:30era ordu erdiro izango da. Beste lau autobus egongo dira arratsaldean: 16:30ean, 17:00etan, 19:30ean eta 20:00etan. Ohi bezala, soilik astegunetan dago hiribusa.

Presaz deitu zuten ez ohiko udalbatzarrerara, gaizki ulertu bat tarteko. Izan ere, alkateak ez, udalbatzarrak eman behar du baimena autobus zerbitzua luzatzeko.



Manttangorri hiribusa. TXINTXARRI

Oraingoz ezin dute zerbitzua asteburuetara luzatu, lizitazioa 2022. urtera arte emanda dagoelako.

 **Etorkizuna da**

Etorkizuna da gure seme-alabena

Etorkizuna da jasangarria

Etorkizuna da hezkuntza

Etorkizuna da emakumezkoena

Etorkizuna da geurea

Etorkizuna da berrikuntza

Etorkizuna da kohesio soziala

Etorkizuna da euskara

**Gipuzkoaren etorkizuna da
guztion artean eraikitzen
duguna.**

**Parte hartu
gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz**



Aterpea eta Sendoki elkarteetako ordezkariak, Kultura eta Merkataritza saileko zinegotziekin batera, Santa Ana Karkaban. TXINTXARRI

Santa Ana azoka eta pintxo lehiaketa, igandean

Eskutik helduta iritsiko dira aurtien bakailao pintxo lehiaketa eta artisautza azoka. Sei tabernatan jarriko dute salgai pintxo tradizionala. Bestalde, goizez eta arratsaldez artisauek beteko dute Okendo plaza eta inguruak, eskuz egindako produktuekin

Txintxarri

Santa Ana eguna ailegatzeko ez da apenas ezer falta. Lasarte-Orian ongi ospatzen da egun hori; meza, dantza, pala txapelketa eta parodian murgildu ohi dira herritarrek uztailearen 26an. Baina hori baino gehiago ere bada. Esaterako, Aterpeak Santa Ana pintxo txapelketa antolatuko du uztailearen 22an, igandean. Egun berean, Sendoki elkarteak azoka egingo du 34. aldiz.

Herrian giroa eta mugimendua sortzeko asmoz batu dituzte Aterpeak eta Sendokik bi ekitaldi horiek. Modu horretan, eskulangintza azoka eta pintxo batzuk tartekatuta ahal izango dituzte herritarrek.

25. urteurrena ari da ospatzen Lasarte-Oriako dendariak eta ostalarien elkarteak. Urtemuga ekitaldi horien barrukoa da Santa Ana pintxo txapelketa, Ramon Ormazabal elkarteak presidentea esan duenez. "Bakailao eta osagai tradizionalak egindako Santa Ana pintxoak

izango da". Goizean eta iluntzean aurkitu ahalko dira pintxoak ondoko tabernatan: Eguzki taberna, Txartel kafetegia, Viña del Mar, Bar Yolanda, Arkupe taberna eta Buenetxea.

Bestalde, Santa Anako azoka tradizionala egingo dute igandean. Errotutako ekitaldia da dagoeneko; 34. aldia du. Hiru gune nagusi izango ditu: batetik, Mercero gunea; bestetik, Okendo plaza bera; eta, azkenik, udaletxe arkupeak.

Merceron elikadurako 26 postu izango dira, produktu naturalekin. Gazta, hestebeteak, euskal pastela, kontserbak, baratxuriak, erroskillak, taloak, pateak, cava, eta ukenduak egongo dira salgai. "Euskal kola freskagarriaren

AURTEN EZ DUTE INOR OMENDUKO AZOKAN, SUKALDARIAK ERAKARTZEKO ZAILTASUNAGATIK

kolaborazioa ere izango dugu", esan du Ormazabalek; Sendoki elkarteak kide ere bada.

Arkupetan, berriz, Lasarte-Oriako artisauek ezarriko dute postua. Zurgintzako postuak, ehoziak, Biyak Bateko taldea, Ganboko misiolari eta Erretinosi Pigmentarioen Gipuzkoako Elkarteak izango dira gune horretan.

Azkenik, Okendon 24 artisauren jarriko dira: zapatagintza, larrugintza, bitxigintza, harri lanketa, larruzko pilotak, makilak, arropak...

Horrez gainera, tailerrak antolatuko dituzte, bai helduentzako zein haurrentzako. 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara egongo da azoka irekita. *Izan puntu Euskaldia*-ren postu bat ere izango da, *ahobizi* eta *belarriprest*-ek izena eman ahal izateko. Aurtien erabaki dute azokan inor ez omentzea, "zaila delako sukaldariak erakartzea".



Alboka Abesbatza Villafranca del Penedeseko emanaldian. ALBOKA ABESBATZA

Alboka Abesbatzak harrera ederra izan du Katalunian

Sitges eta Villafranca del Penedes herrietan, Katalunian, eskaini du emanaldia Lasarte-Oriako abesbatzak

Txintxarri

Alboka Abesbatza Katalunian izan da uztailearen 11tik 15era. Bi emanaldi eskaintzeaz gain, bertako gastronomia eta herriak ezagutzeko aukera ere izan zuten herriko abesbatzako kideek.

Alboka Abesbatzak bi kontzertu eskaini zituen, bata uztailearen 11n, Sitgesen, eta bestea, uztailearen 13an, Villafranca del Penedesen. Bertako Coral Levere eta Coral Laroc abesbatzako kideak izan zituzten lagun, hurrenez hurren. Ikus-entzuleek ederki eskertu zuten herriko abesbatzaren lana.

Alboka abesbatzak eliz musika, doinu profanoak eta euskal abestiak eskaini zituen emanaldietan, baita Joan Manuel Serrat abeslariaren *Paraules d'amour* abesti ezaguna ere.

Kontzertuei amaiera emateko, bertako abesbatzekin batera, *Kantuz eta Muntanyes del Canigó* doinu herrikoiak abestu zituzten.

Baina ez da guztia lana izan; aisialdirako tartea ere izan zuten abesbatzako kideek, eta Sitges eta Villafranca del Penedes bisitatzeaz gain, San Marti de Sarroca eta Codorniu upeltegia ere ezagutu zituzten.



TXINTXARRI

Rock doinuen erritmora dantzan

Atsotokar auzoa. Pig&Kiss taldeko musikariek tresneria eta erreperitorio guztia prest zuten. Eta, bat batean, euria. Xirimiria hasieran, zaparrada gero. Zaleak eta artistak, triste, azkenik jotzerik izango zuten jakin gabe. Zorionez, euriteak ez zuen asko iraun, eta arratsalde goibela ederki alaitu zuten 70. hamarkadako rock doinuak gurera ekarri. Kontzertu dinamiko eta freskoari esker, gogotik egin zuten dantza ikus-entzuleek. Asteazkenean, berriz, Lemon Twist bikotearen doinuez gozatu zuten Okendo plazan bildu ziren herritarrek.



Lasarte-Oriako Sarek harrera beroa egin nahi die Donostiatik datozen txirindulariei. TXINTXARRI

Presoen aldarria, ozen eta bizikleta gainean

Uztailaren 22an, igandean, iritsiko da 'Orain presoak' bizikleta martxa Lasarte-Oriara. Mont de Marsan eta Zaballako espetsxeak modu sinboliko batean lotuko ditu, bizikleta itzuli baten bidez kateatuz. Herritarrak gonbidatu dituzte martxan parte hartzera

Txintxarri

Sarek uztailaren 20tik 23ra Mont de Marsan eta Zaballako espetsxeak era sinbolikoan lotuko dituen bizikleta itzulia antolatu du. Asteartean, Lasarte-Oriako Sareko kideek ekimenaren berri eman zuten Okendo plazan egindako agerraldian: "Lasarte Oriaren ere presoen garaia orain dela ozen aldarrikatzen dugu."

Orain presoak ekimenaren barruko ekintza da, eta euskal presoen urrunketa eta dispertsioarekin amaitzeko garaia dela aldarrikatzea du helburu.

Tourrak lau etapa izango ditu; uztailaren 22an, Lasarte-Oriatik igaroko da 9:30ak aldera, Sareko kideek zehaztu dutenez. Egun horretako ibilbidea Donostia-Altsasu da. Zuloaga plazatik abiatu eta Nafarrorako bidea hartuko du Lasarte-Oriatik barrena.

"Ezinbestekoa ikusten dugu Donostiatik datorren martxari

harrera bero eta jendetsua egitea, baita agur bero bat eskaintzea Altsasura doazenei".

Honenbestez, Sareko arduradunek herritarrak gonbidatu nahi dituzte martxan parte hartu edo honi babesa ematera. Horretarako aukera ezberdinak daudela zehaztu dute asteartean egindako agerraldian: bizikleta hartu eta Atsobarreko biribilgune aldameneko autobus geltokian 9:30ean martxara batu eta herria zeharkatzen duen ibilbidea egitea; ibilbidean zehar babesa eta giroa sortzea; dekorazioa eta azpiegiturarekin laguntzea; inguruko ekimenaren berri eman eta izen ematera animatzea... "Ekarpene guztiak

eskertuko ditugu, denak baitira ezinbestekoak!".

Azkenik, eskerrak aurrez eman nahi izan dizkiete parte hartu edo laguntza lanetan egongo direnei: "Modu batera edo bestera hor egongo zarela badakigunez, alde aurretik eskerririk asko! Ederra izango da!".

Uztailak 22

- **9:00** Donostiako Zuloaga plazatik irteera.
- **9:30** Lasartera iritsi.
- **10:30** Zizurkilen geldialdia.
- **12:45** Legorretan geldialdia.
- **13:30** Ordizian bazkaria.
- **16:15** Zegaman geldialdia.
- **18:30** Altsasura iritsi. Dutxa hartzeko aukera.
- **20:00** Elkartean afaria.

LASARTE-ORITIK ABIATU ETA ALTSASUN AMAITUKO DUTE ETAPA, AFARI BATEKIN



TXINTXARRI

Harrera egin diete sahararrei

Udalbatzar aretoan harrera egin diete herrian uda igaroko duten gaztetxoei. Saharako zortzi eta Ukrainako beste batek pasako dute uda Lasarte-Orian. 11.255 euroekin lagunduko du udalak programa.



TXINTXARRI

Usurbilgo haurrekin jolasean

Ttakun elkarteak antolatutako Txokoetako egitaraua aurrera doa. Aste honetan ere ekintza ugari egin dituzte. Horien artean, azpimarragarria da HH5 eta LH2 arteko gaztetxoei Usurbilera egindako txangoa. Bertan Usurbileko *Uda jolas* egitasmoa haurrekin bat egin, taldeetan banatu eta herri kirolen ginkana egin dute. Elkarrekin bazkaldu eta topaketari amaiera emateko soka-tira erraldoia egin dute.



TXINTXARRI

Umorea eta dantza, nagusi kalean

Babo Royal antzerkiak ikusmira handia sortu zuen uztailaren 12an, ostegunean. Ganso&Cia taldeko kideek errege berezi baten eta bere laguntzailearen abenturei esker, barre eta algaraz bete zuten Okendo plaza. Ostiralean, berriz, *Txapela buruan eta dantza munduan* ikuskizuna izan zen. Etxeko txiki eta gazteek hainbat estilo eta herrialdeko dantzen doinura gorputza mugitu zuten, Eidebako dantzarien pausoak jarraikiz.

Beharrezkoa den osagaia, odola

Oporraldi garaia iritsi da, eta gehienek autoz egingo dute bidaia. Horregatik, errepideetan gerta daitezkeen ezbeharrei aurre egiteko, odola emateko deialdi berezia egin ohi dute. Herritarren erantzuna bat-batekoa da; urtean zehar, ordea, erreserbak mantentzeko arazoak daude

Nerea Eizagirre

Gipuzkoako odol emaileen elkarteak 1964. urtean sortu zen. Hau sortzearekin batera, odol beharraren kontzientzia hedatu eta pixkanaka eremuko herrietan ordezkariak sortu ziren. Lasarte-Oriakoa, esaterako, 1972an sortu zen. Egun Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentro-Gipuzkoa fundazioko parte da. Horrek bermatzen ditu Euskadin odolaren eta ehunen hornidura eta erabilera egokia.

Egunero ospitaleek eta klinikek odola eta bere osagaiak behar dituzte. Gaur ezinbesteko bilakatu dira hainbat tratamendu aurrera eramateko, ebakuntzak egiteko edo gaixoak zaintzeko. Gainera, bizi-itxaropenaren igoera dela eta, sendaezintzat jotzen ziren gaixo batzuen etengabeko behar garrantzitsuak dira. Gipuzkoako odol emaileen elkarteak lanean hasi zenetik 1.150.000 emari baino gehiago

egin dira. 1965ean egin ziren 200 emarietatik egun egiten diren 27.500era garapena handia izan da, baina ez da nahikoa. 2018. urteko Gipuzkoako helburua 31.000 emariko da.

Joxe Usabiaga Lasarte-Oriako eta Oria Beheko Odol emaileen delegaritzako ordezkaria da, eta Mari Jose Espinal Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentro-Gipuzkoa fundazioko langilea. TXINTXARRI-k biekin hitz egin du odol eta bere elementuen beharrari buruz.

Usabiaga eta beste herritar talde batek sortu zuten Lasarte-Oriako odol emaileen ordezkariak duela 48 urte. "Hernaniko ordezkariak jendearekin harreman handia nuen, eta haien bitartez hasi ginen lanean," azaldu du Usabiagak, Lasarte-Oriako taldearen sorrerari buruz.

Mari Jose Espinal, berriz, 30 urte daramatza odolarekin

lanean. Urte horietan guztietan, herrietan zein Donostiako gunean odol ateratzeak egin ditu, eta laborategi lanetan ere ibili da. Egun Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko Donostiako gunean aritzen da. Odola, plaketak eta plasma atera eta poltsak Galdakaora eramateko prestatzen ditu.

Odola eta azterketak

Hilabete azken astelehenean izan ohi da Lasarte-Oriako odol emaileen hitzordua. Donostiako gunean, berriz, astelehenetik ostiralera daude egun osoz, eta larunbat goizetan ere egiten dituzte ateratzeak.

Lehenik, odol emaileek baldintza batzuk bete behar dituzte. "Gaixotasun batzuk gaudituz dituzten pertsonak ezin dute odolik eman. Zenbait herrialdeetara joaten diren pertsonak ere ez. Ohiko odol emaileei galdeketa bat egiten



zaie, eta tentsioa eta burnia ongi duten aztertzen da", dio Usabiagak.

Horrez gain, odol emaile elkarteak urtean zehar emari kopuru bat du zehaztua emakume, zein gizonentzako. Gizonek lau aldiz eman dezakete odola urtean, eta, emakumeek, aldiz, hiru. Odol-emateen artean gutxienez bi hilabete igaro behar dira.

Odol emaile berria izateko 18 urtetik 65 urtera izan behar da, eta 50 kilo baino gehiagoko pisua. Galdeketa eta kontrol medikua ere igaro behar dituzte.

Odolari ere azterketa zorrotzak egiten zaizkiola esan dute argi eta garbi: "Odol emariak hemendik atera eta laborategira eramaten dituzte. Odola aztertu eta zerbait izanez gero, emaileari jakinarazten zaio. Zenbait gaixotasun detektatuz gero, odol hori ez da erabiltzen. Gaixo bati hori jarriz gero hondamena izango litzateke".

Eta ordezkariak lehen urteak dakartza. "Beharra zegoen orduan, garai haietan erresidentzian egiten ziren emariak, eta zuzenean jartzen ziren. Inongo kontrolik gabe," esan du.

"Orain lehengaiaren kalitatea lortzeko kontrol gehiago dago. Lehen guk begiz edo poltsa ikutuaz neurtu behar genuen odol kopurua, eta guk mugitu behar genuen odola poltsetan. Egun

makinak erabiltzen dira lagungarri gisa, eta zehatz mehatz egiten dute lana," adierazi du Espinallek.

Osagaiak

Ostean, odola erabilgarria bada, hiru osagai bereizten dituzte: hematiak edo globulu gorriak, odol-plasma eta plaketak. Beraz, gutxienez hiru gaixorekin erabil daiteke emari bakoitza.

Hala ere, Espinallek jakitera ematen duenez, plaketak edo plasma emateko aukera ere badago. "Odola ematea da ohikoena. Plaketa eta plasma eman daitekeela jende gutxi daki. Ezagun batek esanda edo Donostian makinak ikusita animatzen dira asko. Hala ere, edonork ezin ditu plaketak eman, baldintza batzuk bete behar dira. Plasma emateko ez dago hainbesteko arazorik".

"Odolak 42 egun irauten ditu, baina plaketek bost egun. Odol beharra dago, baina beste elementuena ere," gaineratu du.

Baina nahiz eta zientzia eta medikuntzaren garapena handia izan, oraindik odol-emateak beharrezkoak dira. "Oraindik odolaren ordez ez dago ezer, eta ikertzen ari dira. Baina gu hilko gara, eta oraindik horretan jarraituko dute. Nekez ikusten dut odolaren ordezkariak beste elementuren bat ateratzea oraingoz. Seruma egin dute, baina odolaren elementu guztiak sortzea zaila izango da. Odol



Lasarte-Oriako 70 bat emari egiten dira saio batean. Irudian, osasun zentro zaharrean egindako odol emateetako bat. TXINTXARRI



Lasarte-Oria

Emaileak



Biztanlen arabera beharrekoak	545		
2017ko emailleak	308	127	181
18 eta 32 urte artean	64	28	36
33 eta 47 urte artean	102	38	64
48 eta 62 urte artean	142	61	81

Emariak (urteka)

2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
714	699	703	725	726	685	700	695	706

helburua

beharra nahitaez egongo da," azpimarratu du Usabiagak.

Odol emaielen elkartean Gipuzkoako ordezkariak bakoitzak autonomia osoa duela azaldu du Usabiagak. "Bizkaia eta Araban autobusak daude, eta herriz herri joaten dira," esan du Espinalek.

Talde bakoitzak bilatzen dituz lanean jarraitzeko funtsak eta azpiegiturak. Odol ateratzeetan jartzen duten luntxa, esate baterako, ordezkariak bakoitzak prestatzen du.

Ordezkaritzen garrantzia

Usabiagaren aburuz, ordezkariak sortzen duten berotasuna oso garrantzitsua da. "Ez da autobusean bezala, odola eman, pintxo hartu eta listo. Hemen harremana dago, berotasuna, goxotasuna; asko nabari da. Herritarrek ongi hartzen dute. Gipuzkoa mailan hori daukagu ona, Bizkaian ez dago horrelakorik".

Horri esker, 70 bat pertsona etortzen da hilabetero. "Baina gora beherak daude opor garaietan," jakitera eman du Usabiagak. Espinalen esanetan, berriz, Gipuzkoako herrietako odol ateratzeak eta Donostian egiten direnak ez dute zerikusirik. "Herrietan lortzen den odol kopurua handia da. Guk egunean hogeitatu ateratze egiten ditugu. Herrietan hiru orduetan 80 bat egiten dituzte. Odol emaielen elkartetako

ordezkaritzek lan handia egiten dute," adierazi du.


Espinalek tamalez, odol emaielen berriak mantentzea zaila dela ohartarazi du. "Beteranoak daude gehien, baina horiek zahartzen doaz. Gazte jendea hasten da, baina ikasketak, amatasuna... gauza askorengatik ez dute jarraipen batekin odola ematen. Lehengoan ni baino neska gazteago batek 60 emari egin zituela aipatu zidan, baina hori ez da ohikoa. Aurpegi berriak behar dira".

Lasarte-Oriako emaielen artean ere berdina gertatzen da, baita ordezkariak lantaldean ere. Lau pertsonak osatzen dute egun. Baina egun adinaren gora doaz boluntario horiek, eta belaunaldi aldaketa behar dela azpimarratu du Usabiagak.

Horregatik eta odol eta bere osagaien beharregatik, herritarrek eta batez ere gazte jendea gonbidatu nahi dute emariak egitera.

LASARTE-ORIAKO ODOLA ATERATZEAK	
NON: Osasun Zentroan Beheko kale 1	ORDUTEGIA: 17:30etik 20:30era
NOIZ: Hilabeteko azken astelehena	HURRENGO HITZORDUA: Uztailak 30
DONOSTIAKO GUNEKO ODOLA ATERATZEAK	
NON: Manuel Lekuona kalea, 1 baxua	ORDUTEGIA: Asteazken, 08:30etik 13:30era eta 16:30etik 20:30era
NOIZ: Astelehenerik larunbatera	Larunbatean, 08:30etik 13:30era

ODOLAREN OSAGIAK ETA BERE ERABILERA



PLASMA	PLAKETAK	HEMATIAK
<p>Iraupena: Urte bete</p> <p>Erabilera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Transfusioak (gibelego gaitzak, transplanteak, infekzio oso larriak) - Ontzitzoak prestatzeko (immunoglobulina, albumina...) - Txertoak prestatzeko - Erre handiak 	<p>Iraupena: 5 egun</p> <p>Erabilera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Minbizia - Hemorragiak 	<p>Iraupena: 42 egun</p> <p>Erabilera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Anemia sendatu - Transfusioak - Minbizia

San Pedro eta gero, Karmen

Eguraldiak mehatxu egin arren, primeran igaro dituzte jaiak



Gaztekoen atzetik korrika saio ederrak egin dituzte buruhandiek. TXINTXARRI



Astelehenean Karmengo Amaren omenezko meza egin zuten lasarteoriatarrek Oriako kaperan. TXINTXARRI



Dantzariak agurra dantzatu dute Karmengo kaperan. TXINTXARRI



Pilar Catalina bakarlariaren emanaldiaz gozatu ahal izan dute mezan bildutakoek. TXINTXARRI



Arratsaldeaz gozatzeko puzgarriak izan dituzte etxeko txikienek auzoko frontoian. TXINTXARRI



Merienda ederra prestatu dute arratsaldeko ekintzekin hasi aurretik, indarrak berreskuratzeko. TXINTXARRI



Trebetasun handiz aritu dira lehen aldiz antolatutako toka txapelketan. TXINTXARRI



Gorputzak astintzeko zunba erakustaldi ederra eskaini dute Brunetenea parkean. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako festa nagusiak, sanpedroak, bukatu dira, baina udak aurrera egin du, eta herritarrek badute oraindik aukera ongi pasatzeko herrian bertan. Karmengo Amaren eguna ospatu dute Oriako auzoan. Goizean goiz festen abisua eman dute Tiiriki Tarrakako trikiti eta panderoek. Gazteboenek buruhandiak zirikatatu dituzte gero, ihesean joateko. Hala ere, goizeko ekitaldi jendetsuena tradizionalena ere izan da: meza nagusia Karmengo kaperan. Predikua bakarrik ez, aurrerakua dantzatu eta abestiak kantatu dituzte kaperan. Luntzarekin amaitu dituzte goizeko ospakizunak.

Arratsaldean haurrentzako ekintzekin jarraitu dute festa eguna. Eguraldia, ordea, mehatxu izan dute egun osoz, eta festa zapuztuko zuen beldur, frontoian egin dituzte puzgarriak. Pozik aritu dira auzoko gazteboak saltoka, baina batek baino gehiagok susto ederra hartu du buruhandiak agertzen ikusi dituenean. Bizkarreko ederrak eman dituzte, eta korrika saio biziak egin dituzte gaztebo lasarteoriatarrek harrapatzeko.

Bien bitartean, Oriako I. Toka Txapelketan aritu dira helduak. Bruneteneako lorategian trebetasun handiz jaurti dituzte burdinazko piezak. Martxeli Canflanca eta Maria Jesus Olano izan dira emakumezkoetan garaile, eta Antonio Amondarain, Leandro Miner, Carlos Irastorza eta Jose Antonio Lertxundi gizonezkoetan.

Sorgin Dantzak ere ez du hutsik egin; sortu zuen auzoari dantza erakustaldia eskaini dio. Karmengo kaperatik abiatu, eta Bruneteneako lorategirainoko ibilbidean dantzan aritu da zortzikotea. Baina ez da dantzan aritzeko tarte bakarra izan. Horren ostean, zunba erakustaldia eskaini dute, eta gazte ugari inguratu dira erritmo biziak dantzatzerara.

Festa eguna amaitzeko, Ibai Berriak musika taldeak emanaldia eskaini die bertaratutako herritarrei. Euriak zertxobait busti arren, ikus-entzuleak animatu dira taldearen doinuak dantzatu eta abestera. Adin guztiei zuzendutako abestiak eskaini dituzte.



Oriako Sorgin Dantzak ez du hutsik egin auzoko festetan. TXINTXARRI



Ibai Berriak herriko musika taldearen emanaldiak eman dio amaiera festei. TXINTXARRI

Ezin ekaitzaren aurka borrokatu

Jon Lasarte eta Javi Olazagoitia mendi korrikalariak Ehunmilak lasterketan parte hartu dute. Bertan behera geratu da proba, ekaitza indartsu batek harrapatu baitzituen korrikalariak. Mendiko arriskuei buruz hitz egin dute TXINTXARRI-rekin.

Adrian Garcia

"Horrelakoa da mendia". Igaro dira egun batzuk Ehunmilak mendi lasterketa bertan behera utzi zutela, gauean lehertutako ekaitza indartsu baten erruz. Denbora horretan gertatutakoari buruz hausnartzeko aukera izan dute Jon Lasarte eta Javi Olazagoitia Lasarte-Oriako korrikalariak. Biek pena handiarekin utzi behar izan zuten erronka; "zertxobait etsita" daude, denboraldiko helburu eta amets guztiak ihes egin baitzikiote. Halere, biak bat datoz: "Ongi hartutako erabakia da. Segurtasuna da lehentasuna". TXINTXARRI-ri kontatu dizkiote ostiral gau trumoitsu hartako bizipenak.

Euria, tximista eta trumoiak. Ilundu bezain pronto hasi ziren gauzak okertzen. 18:00etan irten ziren Beasaindik, 168 kilometroko (ehun milako) ibilbidea egiteko, Gipuzkoako mendiak zeharkatuz. Aurreikusita zuten ekaitza lehertu zitekeela, eta, azkenean, Azpeitian, 53 kilometroren buruan, antolatzaileek erabaki zuten lasterketa bertan behera uztea.

Ohartarazpena aurretik

"Zer etorriko ote da?". Horixe pentsatu zuen Lasartek irteeran ohartarazi zieten aurrerago lasterketa eten zitekeela. Gauerdian inguruan hasi zen egoera belzten. "Gorla eta Madarixa inguruan nengoan, 40. kilometroan. Oso gertu sentitzen nituen tximistak, bertan joko balute bezala".

Olazagoitiak, ordea, ez zuen uste mendiko ultra zapuztera iritsiko zenik eguraldia. "Beste urte batzuetan ere egin dituzte ohartarazpen horiek, eta

larunbaterako ona emanda zegoenez, ez nuen uste lasterketari eragingo zionik. Aurreko batean sekulako ekaitzak jo zuen Aralarren, eta berdin-berdin bukatu genuen lasterketa".

Esfortzu bete-betean sartuta, korrikalari batzuk ez ziren segituan jabetu arriskuaz. Horixe bera gertatu zitzaion Lasarte-Oriako korrikalariari. Halere, Lasartek ongi hartu zuen erabakia. Madarixa puntan abisatu zioten Azpeitiara jaistean bukatuko zela lasterketa, ezinezkoa zela modu horretan jarraitzea. "Momentuan bertan arrazoia eman nien; horrela ezin ginen ibili. Egunak igarota konturatu naiz aukera bat galdu dudala. Baina ez zegoen ezer egiterik".

Egun batzuetara, hausnarketa

Olazagoitiak, ordea, hasieran ez zuen ondo jaso antolatzaileen erabakia. "Mendian egona naiz ekaitza betean, eta jarraibideei ongi kasu eginez gero, aurrera egin genezakeela uste nuen. Momentuan haserretu nintzen", onartu du.

Egun batzuk pasata eta adrenalina jaitzita, konturatu da erabaki egokia zela. "Ez zuen zentzurik arriskatzek. Ongi egin zuten". Ez dio lasterketa eten izanaren garrantasuna gozatu, baina gutxienez albiste on bat jaso zuen Olazagoitiak: Club Vasco de Camping elkartearekin podiumera igo zen, taldekako hirugarren postua lortuta. Euskal Herriko Ultra Txapelketa ere bazen.

Horrelako ekaitzak mendian harrapatuz gero, jarraitu beharreko argibideak eman dituzte bi mendi korrikalariak: bastoiak gorde, eroaleak baitira; zuhaitzekin kontuz ibili,

tximistak jotzen badute; taldeak ez egin, tximistak erakartzen baitituzte multzoek; eta oinez ibili.

Lasterketaren lehenengo herena bukatzeaz zuten, eta biak "gustura eta fresko" iritsi ziren Azpeitira. "Esku freno jarrita egin nuen lehen zatia, gero datorrelako neketsuena", dio Olazagoitiak.

Ehunmilak lasterketaz gainera, G2H Goierriko Bi Handiak ere jokatu zuten une berean, 88 kilometrokoa. Hura ere bertan behera utzi behar izan zuten Larraitzen, Txindokira igo aurretik. Lasarte-Oriako Ivan eta Borja Granada anaiek parte hartu zuten horretan.

Antolakuntza, "bikain"

Guztira bi lasterketetan 1.000 korrikalari inguru zeuden. Halere, antolatzaileek erakutsi zuten prestatuak zeudela edozertarako. Boluntario eta korrikalarien senitarteko eta lagunak kontutan hartuta, ia 3.000 pertsona zeuden mendian, baina ordu gutxi batzuetan eraman zituzten denak Beasainera, autobusetan. "Ikaragarri azkar hustu zuten mendia. Oso antolakuntza ona da. Suitzan, Frantzian eta beste herrialdeetako lasterketetan egona naiz, eta ez dut sekula hemengo bezain antolakuntza txukuna ikusi", goraipatu du Olazagoitiak.

Hilabete luze etaiko entrenamenduak eta sakrifizioa eskatzen du mendiko ultra baterako prestakuntzak; kanpoko arrazoiengatik denbora hori alferrik galtzea kolpe gogorra da korrikalariarentzat. Bakoitzak bere erara egin dio aurre. Lasartek, esaterako,



Javi Olazagoitia, erdian, taldekako hirugarren postuko garaikurra eskuetan. J. OLAZAGOITIA



Jon Lasarte, Ehunmilak-en irteeran, Beasainen. JON LASARTE

atseden hartuko du, hurrengo urtera arte behintzat. "Ez dut nekatuta bukatu, baina bai zertxobait gogaituta. Jipoi handiak hartu ditut hona iristeko". Kontrara, Olazagoitiak beste ultra batean jarri du burua: Hiru Handiak egingo du, urriaren 20an. "Asko kostata eta arazo batzuekin, baina lortu

dut sasoiaren jartzea. Orain ez dut hori galdu nahi".

Edonola ere, helburua bete ez arren, poltsikoak bete dituzte eskarmentuz. Hori uste du behintzat Lasartek: "Mendiak asko erakusten dizu. Ez da egun baterako bakarrik. Irakaspen hori bizi osorako daukagu".



GREMIOEN GIDA 2018

Arreta profesionalena, zugandik gertu



Elektrizitatea



Kristaldegi eta Leihoak

**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

**DEL ORIA
KRISTALDEGIA**

Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)
Tel./Fax: 943 36 23 52 - M: 607 234 522

20160 LASARTE-ORIA

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA

ISU
26. urteurrena

Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

**ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA**

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxurak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com



Barne-Diseinua



Iturgintza



Igeltseritza

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria
Tel: 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK

**ILLARRETA
ITURGINTZA**

- ERAKUSKETA ETA SALMENTA
- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria
943 36 31 47 / 943 37 36 17 52
Tailerra: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

Hurrengo
**GREMIOEN
GIDAN**
parte hartzeko:
943 37 14 48 (106)
646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus



Getaria portutik 3.000 bat igerilari aterako dira, eta ia 3.000 metroko bidea egingo dute Zarauzko hondartzaraino. D. APREA/KULTURALDIA

Igerilariak, itsasoari aurre eginez lehian

Ur irekietako denboraldia ederki hasi dute Buruntzaldea IKTko igerilariak. Donostian eta Ondarroan lehen postuetan izan dira. Asteburu honetan, Getaria-Zarautz XLVIII Igerialdia izango da. Igerilekuan, aldiz, Espainiako txapelketetan lehiatzen ari dira

Txintxarri

Getaria-Zarautz XLVIII. Igerialdi entzutetsua lehiatuko dute etzi, uztailaren 22an, 3.000 bat igerilariak. Horien artean, lasarteoriatarak izango dira.

Infantil mailako gaztetzok probari hasiera emango diote, 10:30ean; 800 metroko ibilbidea egin beharko dute, Zarautzeko hondartzatik atera eta bueltan.

Senior mailako lehia, berriz, 11:30ean hasiko da, Getaria portutik. Denboraren arabera taldeetan banatu dituzte igerilariak, eta horien artean hamar minutuko tartea izango da.

Aurten taldeen irizpideetan aldaketak daudela gogoratu dute antolatzaileek. Izan ere, segurtasuna oinarri hartuta, taldeak gehienez 450 igerilari osatuko dira: URREA: 40 min. baino gutxiago; BELTZA: 40-45 min.; BERDEA: 45-50 min.; TXURIA: 50-55 min.; URDINA: 55-65 min.; HORIA, ARROSA eta MOREA: +65 min edo partaide berriak.

Guztiekin Getaria eta Zarautz artean dauden 2.850 metroak egin beharko dituzte, itsasoari aurre eginez.

Baina Buruntzaldea IKTko igerilariak eta ur irekietan igeri egiten duten herritarrek bi aste daramatzate lehian. Urumeako III. Igerialdiak eman zion hasiera Gipuzkoako ur irekien denboraldiari, uztailaren 7an. Aurreko asteburuan, berriz, Ondarroako itsas zeharkaldia jokatu zuten. Bi probatan Buruntzaldea IKTko igerilariak hainbat kategoriatan podiumean izan ziren.

Ondarroan, Nerea Santos gaztetzok, ibilbideko 600 metroak lehen postuan amaitu zituen.

Urumea ibaiko uretan, berriz, Laura Igeak master mailako hirugarren postua eskuratu zuen. Igeriketa taldeko Jon Ramos, Unai Sagarzazu, Enaitz Ibarburu, Aimar Sukunza, Juanvi Martin ere bertan izan ziren lehian, baita beste herritar batzuk ere.

Proba horiek prestatzeko Buruntzaldea IKTko kideek udako entrenamendu saio bereziak egin dituzte ekaina eta uztaila zehar.

Eta denboraldia hasi besterik ez da egin. Gipuzkoako Ligako gainontzeko probak hauek dira: uztailaren 28an, Txingudiko Badiako XV. Igerialdia; abuztuaren

15ean, Paseo Berriko 50. Igerialdia; uztailaren 25ean, Irlako XXXI. Igeriketa Zeharkaldia, eta irailaren 8an, Kontxa Badiako 75. Itsas Igerialdia.


Espainiako txapelketa

Igerilekura bueltatuz, Mikel Esnalek Absolutu mailako Espainiako txapelketan parte hartu zuen, Sevillako Mairena del Aljarafean.

Azken astean sorbaldako arazo bat medio geldirik egon ondoren, lehiaketa egunerako ia errekuperatu eta 50 m. tximeleta probako sailkapen saioan "proba ederra burutu zuen".

26,32 segundotan egin zuen bere proba gogokoena Esnalek, aurreko marka hobetuta. "Eta hobe izan zitekeen egia esan, irteeran oso berandu aritu baitzen eta 0,3 segundu bertan galdu baitzituen", azaldu du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Bestalde, Leire eta Ainhoa Martin ahizpek eta Aintzane Sarobek hitzordu garrantzistua dute aste honetan; Infantil mailako Espainiako txapelketan lehiatuko dute Madrilan, uztailaren 26tik 29ra.



Irudian, asteartean jokatu zen jardunaldiko partidetakoa bat. TXINTXARRI

Santa Ana pala txapelketako bikoteak, finalaren zain

Atzo arratsaldean jokatu ziren final erdikoak. Hurrengo ostegunean, finala eta 3. postua erabakiko dira

Txintxarri

Asteartean amaitu zen Santa Ana pala txapelketako lehen fasea. Sei bikotek hasi zuten lehia, eta finalerdietako partidak atzo arratsaldean jokatu ziren Loidibarren pilotalekuan.

Lehen faseko hamar jardunaldiak jokatu ostean, sailkapeneko lehen lau bikoteek lortu dute final erditarako txartela. Bi soilik geratu dira kanpo: Gurutz Iturbe-Josu Arabaolaza eta Jon Pagola-Jesus Ferreira.

Era honetara, atzo, Xabi Arteaga-Benat Murua bikoteak

Jon Peio Artetxe-Haritz Urkia izan zituzten aurrez aurre.

Beste partida, berriz, Iñigo Arluziaga-Xenki Astiazaran eta Jon Begiristain-Josu Iparragirre bikoteen arteko norgehiagoka izan zen. Baina Xenki Astiazaranek ezin izan zuen jokatu, eta Bernaitz Odriozolak hartu zuen bere lekua.

Finala Santa Ana egunean, uztailaren 26an, osteguna jokatu da. Lehenik, 18:30ean hasita, hirugarren postua izango da lehia.

Aldizkari honen edizioa ixterakoan oraindik ez zeuden finaleko bikoteak erabakita.



E. POZO

Bigarren, Gipuzkoako erlojupekoan

Kadete mailako Gipuzkoako erlojupeko txapelketa lehiatu zuten Legorretan, uztailaren 14an. Buruntzazpiko Benat Carbayadak, Jaime Romerok eta Asier Pozok ibilbideko 26,60 kilometroak 44,1ko batz bestekoan egin eta 35 minutu eta 59 segundo behar izan dituzte helmugara iristeko. Lehen postutik 28 segundora geratu dira gazteak.

ZORION AGURRAK



Oihane
Zorionak maitia, zure
10.urtebetetzean!!!
Zure familia eta lagunak
partetik besarkada handi
handi bat. Ondo pasa
polita!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu TXINTXARRI-ren bidez zorientzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako
zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Leire Airas Fernandez. Uztailaren 12an.

HILDAKOAK

Ana Alargunso Illarramendi. Uztailaren 18an.

María Anduaga Elorza. Uztailaren 13an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 20 ORUE

Larunbata, 21 ACHA-ORBEA

Igandea, 22 ACHA-ORBEA

Astelehena, 23 DE MIGUEL

Astearte, 24 LASA

Asteazkena, 25 GIL

Osteguna, 26 ACHA-ORBEA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629

EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184

KIROLDEGIA: 943 376 182

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9

43 376 181

GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179

KIUB: 943 361 605

UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621

MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960

DYA: 943 464 622

GURUTZE GORRIA: 943 363 953

UDALTZAINAK: 943 362 442

ERTZAINZAK: 943 538 840

SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Lasartearra elkarteko bazkidearen eguna

Lasartearra elkarteak bazkidearen eguna egingo du uztailaren 31n, San Inazio egunean.

11:30ean, txakolina edango da elkartean. 11:45ean, zendutako bazkideak gogora ekarriko dituzte ekitaldi xume batekin. Ostean, txupina eta auzoko tabernatan poteoa egingo dute, trikitilariak lagunduta. 14:30ean, bazkaria izango da elkartean.

Bazkarian parte hartzeko bazkideek izena eman eta 20 euro ordaindu behar dituzte. Inskripzioa uztailaren 26a baino lehen egin behar da Lasartearra elkarteko bulegoan.

Udal kirol-instalazioak itxita

Lasarte-Oriako Udalaren Kirol-Instalazioek bi asteko geldialdia egingo dute, uztailaren 22tik abuztuaren 5era, bi egunak barne.

Epe horretan garbiketa eta mantentze-lanak egingo dira. Igerilekuan ere osasun-araudiak zehazten dituen ekintzak egingo dituzte, hala nola, ur guztia berritzea.

Eginkizun horiek ezin dira egin instalazioak

martxan direla, horregatik urtero udan bi asteko geldialdia zehazten dute egutegian.

Gazteentzat entsegu-lokalak

Lasarte-Oriako Udalak, herriko musika-taldeei babesa emateko neurri gisa, haien esku jartzen ditu Gaztelekuan dauden entsegu-lokalak.

Bi entsegu-areto erabili ahalko dira 09:00etatik 24:00etara, astelehenetik igandera. Lehentasuna dute 30 urtetik beherakoek.

Lokal horiek erabili nahi dituztenek eskaera egin beharko dute idatziz, eta hor adieraziko dute entseguak zein egunetan eta ordutan egin nahi dituzten. Baita taldea osatzen duten kideen datuak ere. Eskaera udaleko erregistroan entregatu beharko dute hilaren 24a baino lehen.

SUDOKUA

8	6	3			1	4		
				4	7		6	3
			3	6		5	1	
9	1	5	6				4	
			5	9	4	1	3	6
4		6	1			9		
6	7		4	2		3		9
			7	1	9	6		4
5	9	4			6		2	

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN EMAN

Pisua alokatzen dut Pintore kalean. Barrualdera ematen du. Bigarren pisua da eta igogailua du. Bi logela, jangela-egongela eta komuna du. Berritua eta altzariz homitua. 667 075 139.

ALOKAIRUAN HARTU

Logela bat bilatzen dut kontratu eta eroldarekin. Telefonoa: 688 87 20 13

LANA

ESKAINITZA

Zerbitzaria behar dute llogeri tabernan. Interesa duenak telefono honetara deitu dezala: 666 46 15 95.

SALEROSKETAK

SALDU

Kotxea Salgai. Renault Clio, 2006. Hiru atekoa, ondo zaindua eta gutxi erabilia. 49.900 km. 1.500 euro. Telefonoa: 687 355 095.

Motorra saltzen da. Piaggio ZIP 50 2T. Zuria eta oso ondo zaindua. IATA marxoan pasata eta 25 urtetik beherakoek erabiltzeko segurua 2019ko apirilera arte ordainduta. 1000 euro. Harremanetarako: 610 953 258.


Kotxe berria saltzen da, Mikrokrrar marka, karnetik gabea. Interesatuak deitu 608 417 794 edo 670 236 356 telefonoetara.

ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48 edo TXINTXARRI erredakzioa

- Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

Txintxarri aldizkaria: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:15	08:20	08:25
08:45	09:00	09:05	09:10
10:30	10:45	10:50	10:55
11:00	11:15	11:20	11:25
11:30	11:45	11:50	11:55
12:00	12:15	12:20	12:25
12:30	12:45	12:50	12:55
13:00	13:15	13:20	13:25
13:30	13:45	13:50	13:55
16:30	16:45	16:50	16:55
17:00	17:15	17:20	17:25
19:30	19:45	19:50	19:55
20:00	20:15	20:20	20:25

txintxarri

www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Santa Ana eguna

Lasarte-Oriak Santa Ana eguna ospatuko du. Uztailaren 22an, igandean, artisau azoka antolatuta da. Honez gain, Aterpeako hainbat tabernatan Santa Ana pintxoak dastatu ahalko dira. Azkenik, Santa Ana egunean, uztailaren 26an, meza, dantza, kirola eta umorez betetako parodia izango dira. Igandea 22 eta osteguna 26

OSTIRALA 20

LASARTE-ORIA Tailerra

Pintaketa tailerra egingo dute. Uztailbeltz egitarauaren barruko ekintza.

Elebeltz Topagunea, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Dantza

Hika Teatroak eta Oinkari dantza taldeak *Sagartu* ikuskizuna eskainiko dute. Eusko Jaurlaritzako XIV. dantza zirkuituko saioa. Okendo plaza, 19:00etan.

ASTIGARRAGA Santio Jaiak

Santio Jaietako aurrekari modura, igel jokoa. Haur eta heldu batez osatutako bikoteek jolas dezakete. Norberto Almandoz plaza, 10:00etan.

ANDOAIN Zinema

Zinema kalean zikloan, *Piratas del Caribe. La venganza de Salazar* filma ikusi ahalko da.

Goiko plaza, 22:00etan.

LARUNBATA 21

LASARTE-ORIA Tailerra

Txapak egiteko tailerra izango dute haur eta gaztetxoek. *Udako tailerrak auzoetan* ekimenaren ekintza.

Zabaleta auzoa, 11:30etan.

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Lur Usabiagak haurrei zuzendutako ipuin kontaketa egingo du, *udako tailerrak auzoetan* ekimenaren barruan. Isla Plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertuak

Uztailbeltz egitarauaren barruan Trikuharri eta Beñaranks eta Bombadil Sound taldeen kontzertuak izango dira.

Elebeltz Topagunea, 22:00etatik aurrera.

ASTIGARRAGA Santio Jaiak

Santio Jaietako aurrekari modura, bi kirol ekintza izango dira:

10:00etan, XVIII. Iker Ruizen oroimenezko 3X3 Saskibaloia Txapelketa kiroldegian.

17:30ean, Astigarragako XVI. Herri Krosa.

Astigarraga, egun osoa.

IGANDEA 22

LASARTE-ORIA Azoka

XXXIV. Santa Ana artisau azoka antolatuta du Sendoki elkarteak. Artisau postuak eta elikagai postuak izango dira.

Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

ASTIGARRAGA Santio Jaiak

Santio Jaietako aurrekari modura, pilota jaialdia antolatuta dute:

Mundarroko gazteak.

Olaizola 1 - Gurutzealde vs

Exposito - Otsandorena.

Olazabal - Santxez vs

Barandiaran - Pascual

Txomiñenea pilotalekua, 10:30etan.

ASTEARTEA 24

LASARTE-ORIA Musika eskola

Musika eskola saioa izango da. Uztailbeltz egitarauaren barruko ekintza.

Elebeltz Topagunea, 17:30etan.

ASTIGARRAGA Santio Jaiak

Santio Jaietako aurrekari modura, diote:

12:00etan, Txupinazo Txikia, Foru plaza.

19:00etan, Txalapartariak, Pregoia eta jaien hasierako txupinazoa, udaletxeko balkoitik.

23:00etan, Vendetta taldearen kontzertua, Joseba Barandiaran plaza.

00:30etan, DJ Txankleta, txosna.

Astigarraga, egun osoa.

ASTEAZKENA 25

LASARTE-ORIA Kontzertua

Stellium taldearen kontzertua izango da. Estilo nahasketa egiten dute eta Europa ekialdeko armoniak nagusi dira. *Kultur Kale Zikloko* kontzertua. Zumaburu auzoa, 20:00etan.

ZUBIETA Santio Eguna

Santio eta San Inazio egunak ospatzeko jai egitarau oparoa antolatuta du Zubietako Jai batzordeak:

09:00etan, Esnadeia Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.

10:30etan, Meza nagusia, Santio eliza.

11:30etan, txupinazoa eta soka-dantza.

Ondoren, luntx herrikoia.

18:00etan, Joko Garbi erakustaldia, herriko gaztetxoaren eskutik.

19:00etan, Bertso pala, frontoian.

Pilotariak:

Larrarte - Arrillaga // Galdos

- Maiza

Bertsolariak:

Markel Eizagirre eta Beñat

Jauregi.

Jarraian, buruhandiak.

22:00etan, 2000. urtean antzezutako Markesaren Etxean herri antzerkiaren proiektzioa, Errebote plaza.

Zubieta, egun osoa.

ASTIGARRAGA Santio Jaiak

Santio Jaietako aurrekari modura, diote:

10:00etan, Bolo eta Toka txapelketa, Norberto Almandoz plaza.

11:00etan, Meza nagusia eta ondoren Txirrisklako txistularien saioa, Santiagomendiko ermita.

12:30etan, Udalbatzaren soka-dantza, Foru plaza.

17:00etan, Haurrentzako jolasak, Pilotari kalea.

19:00etan, Bertso saioa, txosna.

18:00etan, Astigar taldearen dantza erakustaldia, Txomiñenea pilotalekua.

20:30etan, Apalatxe taldearen kontzertua, txosna.

00:00etan, Larrain-dantza, Foru plazatik abiatuko da.

00:05etan, Gozategi taldearen kontzertua, Joseba Barandiaran plaza.

Astigarraga, egun osoa.

OSTEGUNA 26

LASARTE-ORIA Santa Ana eguna

Santa Ana eguna ospatuko da, Ttakun KEK antolatuta:

11:00etan, Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan.

Ostean, luntxa.

12:00etan, Erketz EDTren dantza, Santa Ana karkaban.

22:30etan, Santa Ana parodia.

Erdigunea, egun osoa.

ZUBIETA Oilasko biltzea

Santio eta San Inazio egunak ospatzeko jai egitarau oparoa antolatuta du Zubietako Jai batzordeak:

06:00etan, Oilasko biltzaileen irteera. Baserriz baserri ibiliko dira, trikitixa doinuekin alaituta.

14:30ean, Oilasko biltzaileen iritsiera.

Zubietan, 06:30etik 14:30era.

ASTIGARRAGA Santio Jaiak

Santio Jaietako aurrekari modura, diote:

09:30etan, Zubietalko Joaldunak eta Estangatarrak Trilkilariak, kalejiran.

11:30etan, Baserriko langintzen erakusteta, sagardo dastatzea eta idi-dema, Foru plaza.

12:00etan, Nerea Elustondo, Aitor Mendiluze eta Agin Laburu bertsolarien saioa, Foru plaza.

18:00etan, Herri kirol jaialdia, Foru plaza. Erreterria eta Astigarraga herrien arteko desafioa eta Xabier Orbegoza Arria V. aizkolaria.

19:30etan, Kantu kolore: *Far West* haurrentzako abesti eta dantzak, Joseba Barandiaran plaza.

22:00etan, Peputz abeslaria, txosna.

22:30etan, Su a Feu, Deabru Beltzak taldearen ikuskizuna, Galtzaurko zubitik hasita.

22:00etan, Chimamanda taldearen kontzertua, txosna.

Astigarraga, egun osoa.

USURBIL Kontzertua

Laboaren *Uztaila bakarleri* zikloaren 4. edizioan, Sokartean duoaren emanaldia emanaldia.

Mikel Laboa plaza, 22:00etan.



Elikatu euskara!

Ttakuneko bazkide izanda, herriko euskararen eta kulturaren sustapenean lagunduko duzu

Zer babestuko duzu?

• Haur eta gazteen euskarazko aisialdia

Amaraun kluba
Gazte kluba
Kuadrillategi
Faktoria
Txokoak
Udako kanpaldia

• Helduen euskarazko aisialdia

Plaza Dantza eta Muxikoak
Solaskide programa
Titare jostintza taldea
Helduentzako tailerrak

• Kultur ekintzak

Euskal Inauteriak
Udaberriko bertso saioa
Azkorteke erromeria
Sorgin Dantza
Santa Ana parodia
Euskal Jaia
Euskararen Maratoia
Euskaraldia
San Tomas azoka
Olentzerori ongi etorria

• Txintxarri aldizkaria

• Irakutrezin aldizkaria

• Ikastaroak

Zein abantaila izango dituzu?

- Lehentasuna zenbait izen-emateetan
- Deskontuak
- Zozketak
- "Ttakunberri" buletin digitala
- Ttakuneneako gune orokorra erabiltzeko aukera*
- Batzar orokorreko erabakietan parte hartu eta proposamenak luzatzeko aukera

*Ttakunenea gune gastronomikoa ere erabiltzeko, bazkide kuota 174€-koa da

Urteko
bazkide-tza
54€



Informazioa eta bazkide-tzak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Animatu
probatzera!

Santa Ana Pintxoa **Uztailak** **22** 2018



EGUZKI taberna

TXARTEL kafetegia

YOLANDA taberna

VIÑA DEL MAR kafetegia

ARKUPE taberna

BUENETXEA kafetegi-taberna

